

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
H
L
O
T
T
U
S
R
A
K



JAZZ KONZERTUA

► **ELKANO BROWNING CREAM**

Apirilak 7 ostirala 22:30etan

GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5,00€

Hirukote hau osatzen duten musikarien agenda dela eta, atzeratuz joan den egi da Elkano Browning Cream eta iazko neguan egin zuten lehenengo kontzertu taldeetan elkarrekin aritzen diren musikariak dira hiru hauek. Fran eta Karlos E taldean, Mikel eta Karlos *Mikel Azpiroz Trio* eta *Matt Harding Project* taldeetan batera Mikel Erentxunen taldean. Mikel Azpirozek konposatutako abestiek eta ja loko bertsioek osatzen dute hirukotearen errepertorioa.

Hirukote formatuan aurkezten dute euren ikuskizuna. *Hammond* organoa ardatz funk elegantea garatzen dute. Errepertorioa berriz, euren abestiekin eta *Jimmi The Beatles* taldeen bertsioekin osatzen dute.

Taldea

Fran Iturbe: Gitarra

Mikel Azpiroz: Organo Hammond B3

Karlos Arancegui: Bateria

ERAKUSKETAK

► **Laura García "LOREAK"**

Apirilak 3tik 28ra

9:00-13:00 (Astelehenetik ostiralera)

KULTUR ARETOA (Donibane kalea, 2)



Margoz eta armoniaz beteta, loreak beti izan ditugu gurekin sintonian bizilagur izanik – arte lan txikiak, dokumenturen batean jasotzea merezi dute. Argazki artean dagoen garai honetan, gero eta gutxiago erabiltzen den betiko gela ilun da Laura, argazkigintzak beti eskaintzeko asko duela azaltzeko.

EGILEAREN CURRICULUMA

Izatez Irungoa, urte batzuk badira argazkilaritza ikasi zuela. Ordutik hona lan ezberdinak egin ditu, gehienak erreportajeen esparruan. Hainbat erakusketa e taldean, bai bakarka eta sari batzuk eskuratutakoa da . Argazkilaritza kimi jarraitzen du eta zuri-beltzeko argazkian aparteko trebetasuna erakutsi izan dituen gaiak natura hilak eta kontzertuak dira.

Lezoko zine agenda

APIRILA

ABRIL

2006



Gezala

AUDITORIUMA

800
zine ma



Z

I

K

L

O

A

ASTEARTEA • MARTES

HEGO KOREAKO ZINEMA BERRIA

Abiada hartu du eta geratuko duenik ez dago. Hego Koreako zinema sorkuntzaren egoera bizi bizirik dago. Zuzendari berri baten pelikula ikusi eta txundidurak oraindik utzi ez gaituenean, jatorri bereko beste pelikula bat estreinatzen dute gure inguruko pantailetan. Ez da berria Hego Koreak hartutako bidea. 80. hamarkadan hasi zen herrialde honetako zine konprometituen loraldia. *Changsan' gonmae* talde ezagunak zine komertzialari aurre egin zion orduan proposamen berriak pantailartzeko. Euren ustez, zinematik errealitatea islatu behar zuen bere gordintasun osoan. Horren ondorio da zinema sozial eta politikoa bultzada.

80. hamarkadako zine mugimendu horren ondorengoak dira orain puntan dabilen Kin ki-duk, Park Chan-wook edota Joon-ho Bong bezalako zuzendariak. Gaur egungo Hego Korean egile zinema bertan egindako zinema komertziala bezain ona omen da. Hego Korean egindako ekoizpenek, behingoz, kanpotik etorritakoek baino jende gehiago biltzen omen du bertan.

Zinemaren garapen horren arrazoietakoa bat zine ekoizpenerako ezarri duten eredu omen da. Alde batetik, ekimen pribatu garrantzitsua. Enpresek dirua bideratzen dute jaso ditzaketen abantailengatik (bai zergen ikuspuntutik, baita lortzen duten publizitatearengatik). Bestetik, estatua eta administrazioen babes erabatekoak. Guzti horrek, gazte sortzaile askok zinemaren munduan lanean hastea eragin omen du.


Edonola harridura sortzen duena, diktadura batetik atera berria eta tradizionalista izan den herrialde batetan, zine zuzendari belaunaldi berri honek lantzen dituen gaiak eta istorioen izaerak: askotan gordina, gogorra eta bortxaz betetakoa, bestetan berriz, lasaia eta poetikoa. Ziklo honetan bietatik ikusteko parada izango dugu.



PRIMAVERA, VERANO, OTOÑO, INVIERNO... Y PRIMAVERA

Kin ki-Duk zuzendaria izango da Hego Koreako gaur egungo zinemagileen artean izen handienetako bat. Harribitxi honetaz gain, baditu izaera eta genero ezberdinak ukitzen dituen beste pelikula mordoxka bat. Sormena soberan duen artista izatea frogatu du zuzendari honek. Berlin, Cannes, Venecia, Donostia, Valladolid, Sitges eta beste askotara aurkeztu eta jaun eta jabe, guztietan sariren batekin atera zen Kin ki-Duk pelikula hau aurkeztu ondoren. Kalitatea, beraz, bermatua. Istoriari dagokionez edukia duten horietakoa eta estetika apartekoa.


2003, Hego Korea 🕒 103 min. 🏠 Kim ki-Duk.
🎧 Yeong-su Oh, Ki-duk Kim, Young-min Kim, Jae-kyeong Seo.



MENTIRAS

Ikasle eta eskulturagile baten arteko harremana da pelikulak garatzen duen gaia. Sexua esplizituki lantzen du pelikulak. Protagonistaren beste bi ahizpak bortxatuak izan zirenez, honek berak aukeratutako gizon batekin galdu nahi du birjintasuna. Zuzendariaren helburua Hego Koreako gizarte tradizionalisten mugetatik haratago joatea izan dela esaten duenik bada. Zuek esango duzue.

1999, Hego Korea. 🕒 112 min. 🏠 Jang Sun-Woo.
🎧 Sang Hyun Lee, Tae Yeon Kim, Hye Jin Jeon, Hyun Joo Choi.



OLD BOY

Gizon bat 15 urtez bahiturik izan dute. Aske uzteko modua bitxiarekin hasiko da filma eta ondorengo kalbarioarekin jarraituko du. Bereziki, AEB-ak ezartzen dituen kanonei aurre eginaz, modu zuzen eta loturik gabekoan kontatzen du istorioa Park Chan-wookek. Ah! amaiera hain basatia ez duzu askotan ikusi, ezta ikusiko ere! 2003ko Cannesen irabazitakoaz gain, Sitgeseko terrorre eta fantasia zinemaldian erabat nagusitu zen. *Mendebaldeko begiek sekula ikusi gabekoa* dela ere norbaitek idatzi du.

2003, Hego Korea. 🕒 120 min. 🏠 Park Chan-wook.
🎧 Min-sik Choi, Ji-tae Yu, Hye-jeong Kang, Dae-han Ji, Dal-su Oh.



MEMORIES OF A MURDER

Thriller poliziakoa mendebaldeko zineman asko landu den generoa da. Pelikula honetan Hego Korean gai berak lantzen badakitela erakutsiko digu honako honek. *Serial killer* baten bila dabil polizia. Hildako gorpuen inguruan beti agertzen da mentalki atzeratua den gizona eta ondorioz lehen momentuan susmoak berarengan bideratuko dira. 2003ko edizioan Donostiako Zinemaldian hiru sari eraman zituen, horietako bat zilarrezkoa maskorra zuzendari hoberenari.

2003, Hego Korea. 🕒 129 min. 🏠 Joon-ho Bong.
🎧 Kang-ho Song, Sang-kyung Kim, Roe-ha Kim, Jae-ho Song.

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves

ASTE SANTUAN


EMANALDIRIK EZ DAGO



ZATOICHI

Lezoko zine emanaldietan Takeshi Kitanoren pelikulak ikustea ohitura bilakatu da jada. Oraingoan samurai itsu baten istorioa dakarkigu zuzendari/antzezle japoniarrak. Zatoichi japoniako literaturako heroi klasikoa da. Kitanok bertsio propioa egiten du pelikula honekin. Agurre zahar bat masajeak emanaz bizi da. Inork ez daki ordea, itxura hauskor horren azpian gordetzen den pertsonaiaren izaera nolakoa den. Zinemaldi askotan saritutako filma.


2003, Japonia. 116 min. Takeshi Kitano.
Takeshi Kitano, Tadanobu Asano, Michiyo Ookusu.



DESEANDO AMAR

Azken hamarkadatan egin diren pelikulen artean 5 aukeratu beharko bagenitu *Deseando amar* hau aukeratuen artean egongo litzateke. Fina, dotorea, aparta... hitz batean esatekotan bikaina. Hori bai, Hollywoodeko erritmo eta abiadurak ahaztu! Beste gauza bat, kontuan hartu izen hau: Wong Kar Wai. Noizbait norbaitek artistaren bat ezagutzen duzun galdetzen badizu hor duzu erantzuna.

2000, Hong Kong, Frantzia, Thailandia. 98 min. Wong Kar Wai.
Tony Leung, Maggie Cheung, Ping Lam Siu, Rebecca Pan.




DERSU UZALA

Vladimir Arseniev, izenburu bereko liburuaren idazlea, Hezhen leinu txinatar bateko ehiztari zaharra den Dersu Uzalarekin egingo du topo. Nomada eta animista, naturarekiko errespetua du bizitzaren ardatz Dersu zaharrak. Arseneiev txundituta geratu zen pertsona honek, Mendebaldeko Zibilizazioaren aurka egin gabe, naturarekin eraikia zuen harremana ikusita. Errusian liburua klasiko bat bilakatu zen. Ondoren, Kurosawak bere ukituarekin beste maisulan bat egin zuen.

1975, Japonia. 141 min. Akira Kurosawa.
Maksim Munzuk, Yuri Solomin, Svetlana Danilchenko, Dmitri Korshikov.


LARUNBATA • sábado



EURIAREN SEME-ALABAK

Pirioak eta Hidroak bi herri dira. Elkarren artean borrokan dabilta beti. Pirioak euri zaleak dira eta Hidroak berriz, eguzki eta lehor zaleak. Euria egitearen errua besteena dela uste dute Hidroek eta eguzkiak sortutako lehortea aurkariak eragindako hondamendia izango da Piroentzat. Urtean zehar bai eguzkia, bai euria egin behar duela dakigunoi sortzen zaigun galdera ondokoa da: nola lortuko dute bi herri hauek elkarrekin bakean bizitzea?

2003, Frantzia, Hego Korea. 82 min. Leclerc, Philippe.
Marrakzi bizidunak.



POCAHONTAS(II): JONH SMITHEN ITZULERA

1614ean John Smith Jamestownera itzultzen da Pocahontasen bila. Laster ohartuko da gizon zurien eta indiarren arteko bakea hautsita dagoela. Pocahontasek, bere tribuarekin, ihes egin behar izan zuen Virginia barrualdeko lurraldeetara. Smith kapitainak ausartak, abentura eta arriskuz beteriko bidaia luze baten ondoren, azkenean aurkituko du bere maitea, Pocahontas printzesa.

1998, EEBB. 72 min. Ellery, Tom & Raymond, Bradley.
Marrakzi bizidunak.



HIRUKIAK (On Kixote & Hirukiak eta Aladino)

Joan den urteko Kixotearen bosgarren mendeurrena zela eta, nola-baiteko betekada izan bagenuen ere, hiru ahizpa hauek eskaintzen duten bertsioak merezi duela esan behar da. Santxo Panzaren laguntzaz gain, Kixotek hiru ahizpatxo hauek ere ondoan izango ditu erroten aurkako borrokan. Eta hori gutxi bazen, ondoren Aladinorekin ere elkartuko dira. Beraz, berriro ere abenturaz betetako istorioak dakartzate hirukiek.


2003, Catalunya. 60 min. Hainbat.
Marrakzi bizidunak.



TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON (Patxistein doktorea)

Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharretakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emanaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatakoak dira. Gaurko proiektzioan, Patxistein doktorearen abenturak izango dituzte aipagai. Patxistein Doktoreak burutazio onik ez omen du izaten eta hurrengo barrabaskeria prestatzen ari da. Eroriko ote dira Txirri, Mirri eta Txiribiton bere tranpan?

2004, EH. 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Txirri, Mirri eta Txiribiton.



THE EYE

Ekialdeko zinematik terrorezko pelikula egiten zer esanik baduela adierazi du behin baino gehiagotan. *The Eye* honetan bi urterekin itsu geratzen den Mannen istorioa kontatzen da. 14 urte ondoren kornea ebaketa baten ondorioz ikusmena berreskuratzea lortzen du. Hasieran gauzak ongi doaz, bizitza kalitatea areagotzen zaio, baina... gauza arraroak ikusten hasiko da. Ia hobia den bigarren zati bat egin omen dute, baina hori beste baterako kontua da.


2002, Hong Kong, EB, Tailandia, Singapur. 99 min. Pang anaiak.
Angelica Lee, Lawrence Chou, Yut Lai So, Cindy Lo.



LA MALDICIÓN (GRUDGE)

Japoniako terrore zinemari hil honetan eskaintzen zaion bigarren filma. Etxe batean giroan sumatzen da zerbait. Noizbait zerbait gertatu izanaren sentsazioa uxatu ezina da. Aurreko jabeek sufritutako naturaz gaindiko esperientziak badirudi hor jarraitzen dutela. Erizaintza ikasten ari den ikasle bat da protagonista. Pelikula honen zuzendariari iparamerikarrek *remake*-a egiteko eskatu zioten. Shimizuk bere gaitasunak mahai gainean jarri eta genero honetako takila errekorra hautsi zuen 2003an.


2003, Japonia 92 min. Takashi Shimizu.
Sarah Michelle Gellar, Jason Behr, William Mapother, Clea DuVall.



AUDITION

Aurreko bi astetan zinema japoniarraren alderdi ilunenetariakoak ezagutzeko parada izan bagenuen, *Audition* filmean izaera berekoak (edo okerragokoak) aurkituko ditugu. Telebistako exekutibo batek emakume audizioa prestatzen dio lagunari neskato batekin elkartu dadin. Itxurari dagokionez aukeratzen badakiela erakutsiko du, neska ederra eta mistriotsuaren alde egingo baitu ... baina jarrerei dagokionez zer?

2000, Japonia, Hego Korea 115 min. Miike Takashi.
Ryo Ishibashi, Eihi Shiina, Tetsu Sawaki, Jun Kunimura.



HIERRO 3

Tae-su gazte oso berezia da. Bizimodua berriz, are bereziagoa: etxe hutsetan sartu eta bertan egiten ditu gauak. Ez du ezer lapurtzen edota hausten. Lo egin eta bere kamerarekin argazkiak atera. Asmatzen zaila ez den moduan, egun batean hutsa ez dagoen etxe batean sartuko da.

Lehenengo urteko Donostiako Zinemaldian kritikaren saririk hoberena jaso zuen. Zaila ez zirudien, aurreko urtean Valladoliden eta Veneziara jasoak baitzituen sari nagusiak.

2004, Hego Korea 88 min. Kim ki-Duk.
Seung-yeon Lee, Hyun-kyoon Lee, Hyuk-ho Kwon, Jin-mo Ju.

AUDITORIUM

Sezala

APIRILA - abril

eguna/día	ordua/hora	pelikula
LARUNBATA 1	16:30	EURIAREN SEME-ALABAK
LARUNBATA 1	22:00	THE EYE
OSTEGUNA 6	22:00	ZATOICHI
LARUNBATA 8	16:30	POCAHONTAS (II): SMITHEN ITZULERA
LARUNBATA 8	22:00	LA MALDICIÓN (GRUDGE)
OSTEGUNA 13	EMANALDIRIK EZ DAGO	
LARUNBATA 15	EMANALDIRIK EZ DAGO	
LARUNBATA 15	EMANALDIRIK EZ DAGO	
OSTEGUNA 20	22:00	DESEANDO AMAR
LARUNBATA 22	16:30	HIRUKIAK (On Kixote & Hirukiak eta Aladino)
LARUNBATA 22	22:00	AUDITION
OSTEGUNA 27	22:00	DERSU UZALA
LARUNBATA 29	16:30	TXIRRI, MIRRI eta TXIRIBITON (Patxistein doktorea)
LARUNBATA 29	22:00	HIERRO 3

HEGO KOREAKO ZINEMA BERRIA zikloa

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 4	22:00	PRIMAVERA, VERANO, OTOÑO, INVIERNO... Y PRIMAVERA
ASTEARTEA 11	22:00	MENTIRAS
ASTEARTEA 18	22:00	OLD BOY
ASTEARTEA 25	22:00	MEMORIES OF A MURDER